

# Praktika kulturalak eta nortasun kolektiboak Euskal Herrian



LURRALDEA  
NORTASUNA  
KULTURA  
HIZKUNTZA

2004-2005ean eraman inkesta kuantitatiboaren eta  
kualitatiboaren emaitzen aurkezpena

2005eko irailaren 17an, Uztaritzen



Euskal kultur erakundearen «Batekmila» programaren barnean eraman inkesta Eusko Ikaskuntzaren partaidetzarekin. Akitania-Euskadi fondoari esker egin da, bai eta ere Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen kabinetearen laguntza teknikoari esker. 2005 - EKE-ICB ©



**Euskal Herri osoan eta besteak beste iparraldean nortasunari eta kulturari lotuak diren praktika eta jarreraren identifikatzea. Lau gai landuak izan dira : lurraldea, nortasuna, hizkuntza eta kultura.**

# Hunkituak izan diren lurraldeak eta pertsonak

16 urte goragoko biztanleria

3

Orotara 4000 pertsona galdezkatuak izan dira:

- 3800, inkesta kuantitatiboaren bidez. Inkesta kuantitatiboaren tresna nagusia 53 galde zauzkan galdesorta bat zen, galdesorta honekin ibili dira inkestatzaileak etxez etxe.
- 200, inkesta kualitatiboaren bidez galdezkatuak izan dira. Inkesta kualitativoan eztabaida taldeak erabili dira, bai eta ere buruz buruko elkarrizketak.

## Euskal Autonomia Erkidegoa

- 1204 inkestatu
- 6 eztabaida talde eta 3 buruz buruko elkarrizketa

## Nafarroa

- 1008 inkestatu
- 6 eztabaida talde

## Ipar Euskal Herria

- 1610 inkestatu
- 4 eztabaida talde eta 7 buruz buruko elkarrizketa

- + 16 eztabaida talde hauetaz aparte, beste 6 eztabaida talde izan dira 3 lurraldeetako pertsonen nahasketaz osatuak. Eztabaida talde bakoitza gai berezi bati buruz arizanda : hezkuntza, euskaingintza, kulturegintza eta sorkuntza, gizarte mugimenduak, mugaz bi aldetako harremanak besteak beste.



Euskal kultur erakundearen «Batekmila» programaren barnean eraman inkesta Eusko Ikaskuntzaren partaidetzarekin. Akitania-Euskadi fondoari esker egin da, bai eta ere Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen kabinetearen laguntza teknikoari esker. 2005 - EKE-ICB ©



EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA  
INSTITUT CULTUREL BASQUE

# Noiz iragan den inkesta eta nork eginik

4

## Nafarroa - EAE

2004ko urria eta abendua artean

- Inkesta kuantitatiboa :  
*Donostiako Ikertaldea*
- Inkesta kualitatiboa :  
*Bilboko Kualitate lantaldea*

## Ipar Euskal Herria

2004ko urria eta 2005eko ekaina artean

- Inkesta kuantitatiboa :  
*Baionako Stat'Adour*  
kabinetea
- Inkesta kualitatiboa :  
*Baionako Stat'Adour* kabinetea  
(2 eztabaida talde) eta *Aldia Conseil et Formation Michel Veunac-en*  
bidez (2 eztabaida talde)



Euskal kultur erakundearen «Batekmila» programaren barnean eraman inkesta Eusko Ikaskuntzaren partaidetzarekin. Akitania-Euskadi fondoari esker egin da, bai eta ere Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen kabinetearen laguntza teknikoari esker. 2005 - EKE-ICB ©



EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA  
INSTITUT CULTUREL BASQUE

## OBRALARITZA

**Euskal kultur erakundea / Eusko Ikaskuntza**

## BATZORDE ERAGILEA

- **Xabier Itçaina** / Bordaleko Zientzia Politiko Institutuan ikerlaria
- **Igor Ahedo** / Euskal Herriko Unibertsitatean erakaslea, Eusko Ikaskuntzaren ordezkaria
- **Iñaki Martinez de Luna** / Soziologoa, Euskal Herriko Unibertsitatean erakaslea, Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen kabinetearen burua
- **Larraitz Mendizabal** / Soziologoa, Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen kabinete langilea /
- **Erramun Bachoc** / Soziolinguista, EKE-ko lehendakari ohia
- **Pantxoa Etchegoin** / EKE-ko zuzendaria
- **Terexa Lekumberri** / Etnologoa, EKE-ko ondarea arduraduna

**Inkesta Eusko Ikaskuntzaren partaidetzarekin egin da, bai eta ere Akitania-Euskadi fondoaren eta Eusko Jaurlaritzako prospekzio soziologikoen kabinetearen laguntza teknikoari esker.**



## 1. LURRALDEA

1. Lurraldearen definizioa
2. Erreferentziazko lurraldea

## 2. NORTASUNA

1. Nortasunaren baldintzak
2. Nortasun sentimendua

## 3. HIZKUNTZA

1. Hizkuntza gaitasuna
2. Euskara ikasteko motibazioak
3. Euskal izenak

## 4. BIZITZA KULTURALA

1. Euskal kulturaren definizioa
2. Euskal kulturaren alorrak
3. Sustengatu behar diren ekintzak
4. Praktika kulturalak
5. Euskarazko hedabideak
6. Euskal kultura eta kultura mundializatua
7. Euskal Herriko kirolak

## ONDORIOAK

Inkestaren bilduma

## 1. LURRALDEA



Euskal kultur erakundearen «Batekmila» programaren barnean eraman inkesta Eusko Ikaskuntzaren partaidetzarekin. Akitania-Euskadi fondoari esker egin da, bai eta ere Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen kabinetearen laguntza teknikoari esker. 2005 - EKE-ICB ©







EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA  
INSTITUT CULTUREL BASQUE



# 1. LURRALDEA

9

Zure ustez, zein lurraldek definitzen dute hobekienik Euskal Herria ?



Euskal kultur erakundearen «Batekmila» programaren barnean eraman inkesta Eusko Ikaskuntzaren partaidetzarekin. Akitania-Euskadi fondoari esker egin da, bai eta ere Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen kabinetearen laguntza teknikoari esker. 2005 - EKE-ICB ©







EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA  
INSTITUT CULTUREL BASQUE

Zure ustez, zein lurraldek definitzen dute hobekienik Euskal Herria ?

Hego aldeak herrialdeaz duen ikusmoldea instituzioetatik hurbil da, eta bereziki Nafarroan : autonomiak du herria eraikitzen edo definitzen (EAE : %32 ; Nafarroa : %38) eta gero Euskal Herriak (EAE : %30 ; Nafarroa : %26)

Iparraldean herria lehenik zazpi probintzietan identifikatzen diote eta gero iparralde barnealdeari, beharbada hor baita euskaraz gehienik hitzegiten ? Baliteke beste arrazoi batzu ere izatea...

## Zein lurralderekin identifikatzen zara gehienik ?



Zein lurralderekin identifikatzen zara gehienik ?

**Euskal Herritar guziek duten ikusmolde berdina hauxe da :**

■ Identifikazioa non ere bizi den herriari edo hiriari egiten da lehenik, bereziki Euskal Autonomia Erkidegoan (72% )

■ Beren burua Europako edo mundu zabaleko herritar daukatenak gutiengo tipi tipian daude (iparraldean : 6%, Nafarroan : %4, EAE : %4).

Zein lurralderekin identifikatzen zara gehienik ?

**Lurraldeen arteko ezberdintasunak hauxe dira :**

Hegoaldean Estatuak ez du garrantzi handirik identifikazio eredu bezala, aldiz Iparraldean Frantziari buruzko atxikimendua (17%) nor bere lurraldeari buruzkoaren heinekoa da (%16), zeinahi izan dadin erantzulearen adina, sexua, ikasketa maila edo lanbidea.

Nafartarrak Nafarroari biziki atxikiak dira (%24, laurdena...).

Orokorki erran ote dezakegu identifikazioa erakundeen aldetik hobekienik egituratua den lurraldeari buruz egiten dela ?

## 2. NORTASUNA



Euskal kultur erakundearen «Batekmila» programaren barnean eraman inkesta Eusko Ikaskuntzaren partaidetzarekin. Akitania-Euskadi fondoari esker egin da, bai eta ere Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen kabinetearen laguntza teknikoari esker. 2005 - EKE-ICB ©



**EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA**  
**INSTITUT CULTUREL BASQUE**




## 2. NORTASUNA

15

Zure ustez, zein dira bi baldintza garrantzitsuenak pertsona bat Euskal Herritar senditzeko ?

Erantzun nagusiak (10etatik lehenbiziko 5ak)

- |                                                                                                                                            |                                                                                                                                                            |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
|  Euskal Herrian sortua izatea<br>Etre né(e) au Pays Basque |  Euskal Herrian bizi eta lan egitea<br>Vivre et travailler au Pays Basque |
|  Euskaraz hitz egitea<br>Parler basque                     |  Euskal Herritar izan nahi izatea<br>Vouloir être basque                  |
|  Arbaso euskaldunak izatea<br>Avoir des ancêtres basques   |                                                                                                                                                            |



Euskal kultur erakundearen «Batekmila» programaren barnean eraman inkesta Eusko Ikaskuntzaren partaidetzarekin. Akitania-Euskadi fondoari esker egin da, bai eta ere Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen kabinetearen laguntza teknikoari esker. 2005 - EKE-ICB ©

**Zure ustez, zein dira bi baldintza garrantzitsuenak pertsona bat Euskal Herritar senditzeko ?**

**Euskal Herritar izateko ustezko baldintzetan, desberdintasun handiak badira lurralde batetik bestera.**

Euskal Autonomia Erkidegoan, 3 baldintza nagusi agertzen dira : euskal herritar izateko nahia, herrian bizitzea eta lan egitea, sorlekua.

Ipar Euskal Herrian, baldintza nagusia sorlekua da, gero euskara, eta arbaso euskaldunak ukaitea. Askoz urrunago Euskal Herrian bizi eta lan egitea. Euskal Herritar izan nahia 5.posizioan da.




Zure ustez, zein dira bi baldintza garrantzitsuenak pertsona bat Euskal Herritar senditzeko ?

**Oraingo antropologia erreferentziazat hartuz, bi muturretako nortasun kolektibo teorietan gabiltza :**


- Alde batetik, iparraldean, nortasuna ondare bat da, nor bere nahia baino sakonagoa, familia handi bateko senideak bagine bezala.
- Bestaldetik, hegoaldean, nortasuna hautu bat da, sentimendu kolektibo hau onartua eta sustatua delarik.

### Nola sentitzen duzu zure burua ?


**Ipar Euskal Herria**  
Pays Basque nord



**Euskal Autonomia Erkidegoa**  
Communauté Autonome Basque



**Nafarroa**  
Navarre



 **Euskal Herritarra, edo gehienbat Euskal Herritarra**  
Basque ou plutôt basque

 **Euskal Herritarra bezain Espainiarra / Frantsesa**  
Aussi Basque que Français / Espagnol

 **Nafarra**  
Navarraais

 **Nafar-Espainiarra**  
Navarraais / Espagnol

 **Euskal Herritarra-nafarra**  
Navarraais / Basque

 **Espainiarra / Frantsesa edo gehienbat Espainiarra / Frantsesa**  
Français / Espagnol ou plutôt Français / Espagnol

 **Besterik**  
Autre

Nola sentitzen duzu zure burua ?

**Nortasun sendimenduak oso desberdinak dira lurralde batetik bestera :**

- Ipar Euskal Herrian, gehiengoa frantses eta gehienik frantses senditzen da (%53), euskal herritar-frantsesak %24 dira, euskal herritarrak eta gehienik euskal herritarrak %16.
- Nafarroan gehiengoa nafartarra senditzen da (%38), gero nafar-espainolak dira (%19) eta nafar-euskal herritarrak (%15). Gehienik euskal herritarrak %10 dira.
- Euskal Autonomia Erkidegoan, euskal herritar eta gehienik euskal herritar senditzen direnak %57 dira, euskal herritar-espainolak %29, gehienik espainolak %9.

Nola sentitzen duzu zure burua ?

**Ohartzen gara ere , gisa hartako karkulak eginez (nortasun bikoitzak elgarretaratuz), nortasun bikoitzak edo hirukoitzak nagusi direla 3 lurraldeetan eta neurri berdintsuetan :**


Iparraldean, euskal herritar soilak %11 dira, frantses soilak %36 eta euskal herritar-frantsesak %45.

EAE-n, euskal herritar soilak %40 dira, espainol soilak %6, euskal herritar-espainolak %46.


Nafarroan nortasun molde asko daude, bakarrak, bikoitzak edo hirukoitzak..

### Nola sentitzen duzu zure burua ?


Batez-bestekoa  
Moyenne



Ipar kostaldea  
Côte nord



Hego kostaldea  
Côte sud



### Nortasun sentimendua Ipar EH-ko lurraldeka

■ Euskal Herritarra, edo gehienbat Euskal Herritarra  
Basque ou plutôt basque


■ Euskal Herritarra bezain Frantsesa  
Aussi Basque que Français

■ Frantsesa edo gehienbat Frantsesa  
Français ou plutôt Français


■ Besterik  
Autre

■ Ed/Ee  
Nsp/nrp

Lapurdi barnekaldea  
Labourd intérieur



Nafarroa-Beherea / Zuberoa  
Basse-Navarre / Soule



Nola sentitzen duzu zure burua ?

Nortasun sendimendua iparraldean bereziki zonaldeka Euskal herritar edo gehienbat euskal herritar sendimenduak euskalduntasunaren kurbari jarraitzen zaio, « *frantsesa edo gehienbat frantsesa* » frankofonia elebakarraren kurbari jarraitzen zaion bezala.

Horiek hola, nortasun bikoitzaren sendimendua ere askoz indartsuago da eskualde euskaldunenean.

Nola sentitzen duzu zure burua ?

### Nortasun sendimenduaren bilakaera

Hiru lurraldeetan, jendea orokorki behin betikotasunaren alde agertzen da. Bi galde baziren galdesortan : « *duela 10 urterekin konparatuz, nola senditzen duzu zure burua ?* » **eta** « *hemendik 10 urtetara, nola uste duzu sendituko duzula zure burua* », **bietan « berdin »** erantzuna agertzen dute nagusiki jendek, kasuen %71tik %82era.

### 3. HIZKUNTZA



Euskal kultur erakundearen «Batekmila» programaren barnean eraman inkesta Eusko Ikaskuntzaren partaidetzarekin. Akitania-Euskadi fondoari esker egin da, bai eta ere Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen kabinetearen laguntza teknikoari esker. 2005 - EKE-ICB ©



**EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA**  
**INSTITUT CULTUREL BASQUE**




### 3. HIZKUNTZA

25

Zein izan da zure lehen hizkuntza hiru urte bete arte ?

Ipar Euskal Herriko emaitzak



**Zein izan da zure lehen hizkuntza hiru urte bete arte ?**


**Euskara gibelka doa ama hizkuntza bakar bezala eta frantsesak garrantzia hartzen du.**

**Jatorrizko elebitasuna hein berean dago.**

### 3. HIZKUNTZA

27

Zein da euskaraz hitz egiteko duzun gaitasuna ?



Zein da euskaraz hitz egiteko duzun gaitasuna ?

**Eraitza hauek ezagutzen ditugu, 1991, 1996 eta 2001eko inkesta soziolinguistikoen eraitzen antzekoak baitira. Mintzamina azter dezagun, gaitasun adierazgarriena baita, eta lurraldeak konpara ditzagun :**

■ Iparraldean herritarren heren bat elebidun eraginkorrak (%27) eta elebidun hartzaileak dira (%8).

■ Ipar Euskal Herri barnealdera joan arau, euskaltasuna gehitzen da (%71 elebidun eraginkor Baxe Nafarroan eta Xiberoan, %41 Lapurdi barnealdean, %23 hego kostaldean, %16 ipar kostaldean) eta, araberean, erdaltasuna gutitzen.

Zein da euskaraz hitz egiteko duzun gaitasuna ?

- Nafarroa da lurralde erdaldunena baina euskalduntzen ari da eta kasik herritarren laurden bat elebidun eraginkorrak (%13) eta elebidun hartzaileak (%10).
- Euskal Autonomia Erkidegoa da lurralde euskaldunena, herritarren heren bat elebidun eraginkor delarik (%34) eta %22 elebidun hartzailea


Zein da euskaraz hitz egiteko duzun gaitasuna ?

■ Adin taldeak konparatuz, EAE-an gazteagoa eta euskaldunago dira (%80 elebidun aktibo eta hartzaile), eta iparraldean gazteago eta erdaldunago (%30 elebidun aktibo eta hartzaile).

■ Korelazio handia agertzen da hizkuntza gaitasuna eta nortasun sendimenduaren artean : gehienik euskal herritar senditzen direnak euskaldunago dira (elebidun aktibo gehiago bada hauen artean), nortasun bikoitza dutenekin konparatuz.

## Euskara ikasten ari zara ?

Euskaraz pixka bat edo hitz batzuk dakitenei zuzendu galdera



#### Euskara ikasten ari zara ?

**Hiru herrialdeetako erdi euskaldunetan eta euskaldunetan, oso gutik euskara ikasteko edo hobetzeko xedea dute.**

Euskara ikasten entsegu bat egin dutenak edo baldintza onen beha daudenak askoz gehiago dira EAEn (%53), Nafarroan (%37) edo iparraldean baino (%28).

Euskara ikasteko asmorik ez dutenak gehiengoa daukate : iparraldean erdaldunen %61ek ez dute euskalduntzeko xede izpirik, EAE-n %40ak eta Nafarroan %56ak.





Familiako eta eskolako transmisioak garrantzia handia dauka, zeren eta estatistiken arabera 16 urtez goragoko euskal ikasleen kopurua ahula da.



## Zein dira zure euskararen ikasteko arrazoiak ?

Question réservée à ceux qui ont essayé, essaient, ou essaieraient d'apprendre l'euskara

### Résultats du Pays Basque nord



Zein dira zure euskararen ikasteko arrazoiak ?

Iparraldean orohar gehienik agertzen diren arrazoiak integrazioari buruzkoak dira (« *euskaldunekin komunikatzeko* » : %38 ; « *herri honetako hizkuntza delako* » : %29), bereziki euskal-frantses edo frantses bakarrik senditzen direnetan.

Gehienik euskal herritar senditzen direnetan, beste bi arrazoi agertzen dira euskara ikasteko, beren nortasun sendimenduaren araberrakoak : Euskal Herrikoa senditzen naizelako (%25), nire erroak aurkitzeko (%19).

Zein dira zure euskararen ikasteko arrazoiak ?

Euskara ikasteko arrazoi praktikoak oso guti agertzen dira iparraldean : lana aurkitzeko (%4), eta seme alabak ikasten ari direlako (%4). Hau da euskarak gizarte bizitzan duen leku urriaren ondorioa, bai eta ere legezko onarpen faltarena. Euskal Autonomia Erkidegoaren adibideak erakustera ematen du gizarte bizitzarako beharra dela euskara ikasteko motibazio indartsuena.

Alderantziz euskara ikasteko asmorik ez dutenen zergati nagusiak dira, denbora beste zerbaitetan erabiltzeko nahia (lehentasuna ez diote euskara ikasteari ematen) eta denek frantsesez dakitela beraz ez dutela euskararen beharrik komunikatzeko.




### 3. HIZKUNTZA

36

Seme-alabarik baldin baduzu, edo bazenu, nahi zenuke haiek euskaraz jakitea ?

Ipar Euskal Herriko emaitzak

-  Jadanik badakite  
Ils la connaissent déjà
-  Bai, nahiko nuke jakin dezaten  
Oui, je voudrais qu'ils la sachent
-  Berdin zait / Ez, ez nuke nahi  
Peu m'importe / Non je ne voudrais pas



Euskal kultur erakundearen «Batekmila» programaren barnean eraman inkesta Eusko Ikaskuntzaren partaidetzarekin. Akitania-Euskadi fondoari esker egin da, bai eta ere Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen kabinetearen laguntza teknikoari esker. 2005 - EKE-ICB ©



Seme-alabarik baldin baduzu, edo bazenu, nahi zenuke haiek euskaraz jakitea ?

Ondorio hauek kasu emanez hartu behar dira, inkestatu askorentzat galdea hipotetikoa baitzen.

Hiru lurraldeetan (nahiz eta ez den grafikoetan iparraldea baizik agertzen) transmititzeko nahia egiazko transmizioa baino gorago-koa da, hau egia da ere (nortasun sendimenduarekin gurutzatuz) gehienik euskal herritar senditzen direnen aldetik ere.



Ezaxola eta jarrera ezezkorrak biziki gora dira iparraldean (%32) EAE-ri konparatuz ( %4 ), bereziki euskal herritar senditzen ez direnetan (%48), baina ere guti edo aski euskal herritar senditzen direnetan (%5).

### 3. HIZKUNTZA

38

## Euskal izenak mantentzearen eta bultzatzearen alde edo kontra zaude ?

### Ipar Euskal Herriko emaitzak



Batez-bestekoa  
Moyenne



Euskal kultur erakundearen «Batekmila» programaren barnean eraman inkesta Eusko Ikaskuntzaren partaidetzarekin. Akitania-Euskadi fondoari esker egin da, bai eta ere Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen kabinetearen laguntza teknikoari esker. 2005 - EKE-ICB ©



Euskal izenak mantentzearen eta bultzatzearen alde edo kontra zaude ?

- Jende izenen eta toponimoen begiratzeak eta bultzatzeak iritzi baikorra du Euskal Herri osoan, %15 axolarik gabe dira eta kasik nehor ez da kontra.
- Iparraldean, gogo hoberena erakusten dutenak dira 30-45 urtekoak (%81 alde), bai eta ere euskaldunak (%85) eta gehienik euskal herritar senditzen direnak (%97).
- Horiek hola, beti iparraldean egonez, jarrera baikorra adierazten dute ere gehienik frantses senditzen direnek (%69) eta erdaldunek ere (%72).

## 4. BIZITZA KULTURALA



Euskal kultur erakundearen «Batekmila» programaren barnean eraman inkesta Eusko Ikaskuntzaren partaidetzarekin. Akitania-Euskadi fondoari esker egin da, bai eta ere Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen kabinetearen laguntza teknikoari esker. 2005 - EKE-ICB ©




EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA  
INSTITUT CULTUREL BASQUE



### Zer da zuretzat euskal kultura ?

#### Ipar Euskal Herriko emaitzak

-  Euska Herriari buruzkoa  
Création ayant trait au Pays Basque
-  Euskaraz egindakoa  
Création en langue basque
-  Euskal Herriko jendeak egindakoa  
Création d'un artiste du Pays Basque
-  Euskal Herrian egindakoa  
Création produite au Pays Basque



### Zer da zuretzat euskal kultura ?

Definizio bat ere ez da bestei nagusitzen. Bi definiziok emaitza ho-  
beak ardietsi dituzte : « *Euskal kultura da Euskal Herria gaitzat duen sor-  
mena, edozein hizkuntzatan izan dadin* » **eta** « *Euskal kultura da Euskal Her-  
riko artistek egiten dutena hemen edo nonahi* ».

Dirudi kultura hizkuntzatik bereizten dela eta lekutasuna ez dela  
baitezpadakoa. Jenden gogoan, garrantzitsuena da Euskal Herria  
izatea kulturgaia bai eta ere artistaren nortasuna.

Iparraldeko erantzuleen %56en arabera, euskarak ez du sekulako  
garrantzirik kulturgintzan.

## 4. BIZITZA KULTURALA


43

Zein dira euskal kulturarekin gehien lotzen dituzun hiru elementuak ?



### Ipar Euskal Herriko emaitzak

#### Aipatuak izan diren lehen bost elementuak


Cinq premiers aspects cités



Euskal Herritar  
senditzen  
Sentiment  
plutôt basque



Frantsesa  
senditzen  
Sentiment  
plutôt français



Euskal kultur erakundearen «Batekmila» programaren barnean eraman inkesta Eusko Ikaskuntzaren partaidetzarekin. Akitania-Euskadi fondoari esker egin da, bai eta ere Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen kabinetearen laguntza teknikoari esker. 2005 - EKE-ICB ©

Zein dira euskal kulturarekin gehien lotzen dituzun hiru elementuak ?

Iparraldean, euskal kulturari maizenik lotzen diren 5 osagai nagusiak dira bataz-bestekoen arabera : euskara, kantua, dantzak, pilota eta ohiturak.

Zona euskaldunenak gehiago baloratzen du euskara.

Bost alor hauek aipatuak dira, zeinahi izan dadin nortasun sendimendua, baina ordena desberdinean.

Segida edo ondotik aipatzen dira musika, gastronomia eta bestak, hiruak maila berdinean. Urrunago monumentuak eta euskal kirolak. Eta zerrendaburuan aurkitzen ditugu hizkuntza erabiltzen duten ekintza batzu, hala nola mitologia, antzerkia, ahozko eta idatzizko literatura.

Zein dira euskal kulturarekin gehien lotzen dituzun hiru elementuak ?

■ Iparraldearen berezitasuna da kantuari emaiten dion garrantzia (2.tokian da kantua)


■ Dirudi kontraesan bat badagoela euskal kulturaren definizioarekin, non ere hizkuntzak ez baitzuen toki handirik eta bereizten zen kulturatik. Hiru lurraldeetan euskara da euskal kulturaren osagai nagusia, askoz dantza eta pilota baino gorago.

Gero ohiturak eta gastronomia aipatzen dira.


### Gustuko litzaizuke euskal kulturarekin lotutako aktibitate eta ekitaldi gehiago egotea ?

Ipar Euskal Herriko emaitzak -


Nortasun sentimendu nagusia :  
Euskal Herritarra  
Sentiment plutôt basque



Batez-bestekoa  
Moyenne



Nortasun sentimendu nagusia :  
Frantsesa  
Sentiment plutôt français



Bai, nahiko nuke...  
 Oui, j'aimerais bien...

Berdin zait  
 Peu m'importe

Ez dut beharrezkoa ikusten  
 Non, pas besoin

Ed/Ee  
 Nsp/Nrp

Gustuko litzaizuke euskal kulturarekin lotutako aktibitate eta ekitaldi gehiago egotea ?

- Orokorrean, euskal kultura sustengatu behar dela erraiten dutenen kopuruak ez du gainditzen axolagabeen eta euskal kulturaren aurka direnen multzoa.
- Bizitza kulturalaren kaltetan den jarrera hori, gehiengoan agertzen da lagina guzian, edozein adinetan eta zeinahi izan dadin hizkuntza gaitasuna.
- Ezberdintasun ohargarriena agertzen da nagusiki euskal herritar senditzen direnen eta nagusiki frantses direnen artean : lehenetan bi herenek (%62) jarrera baikorra adierazten dute, besteetan hein bereko axolagabea eta aurkakoa (orotara %63).

**Gustuko litzaizuke euskal kulturarekin lotutako aktibitate eta ekitaldi gehiago egotea ?**

Euskal Herri osoan, gehiengo batek (%55), nahiz eta gehiengo ahula izan, jarrera baikorra adierazten du euskal kultura sostengatzeko, bereziki EAE-an (%60), gazteetan (%61), euskaldunetan (%71), nagusiki euskal herritar senditzen direnetan (%75) eta nafar- euskaldun senditzen direnetan (%90).







## 4. BIZITZA KULTURALA

49

### Euskal kulturarekin lotutako zein arlo bultzatu beharko lirateke gehien ?

Euskal kultura bultzatzea nahi dutenei zuzendu galdera

#### Ipar Euskal Herriko emaitzak Aipatuak izan diren lehen bost arloak



### Euskal kulturarekin lotutako zein arlo bultzatu beharko lirateke gehien ?

Euskal kultura bultzatzea nahi dutenei zuzendu galdera

- Iparraldea, sostengatu behar diren kultura alorretan gehienik aipatu 5ak dira, batzaz beste : kantua, dantza, musika, euskara eta ohiturak.
- Definitu ziren kulturaren 5 osagai garrantzitsuenen arabera dira erantzun hauek, salbuespen batekin hala ere : pilota 8.mailara gibelatu da, musikak hartu du pilotak zuen lekua.
- Euskal Herri barnealdeak, euskaldunenak, toki berezi bat ematen dio euskarari eta antzerkiari

### Euskal kulturarekin lotutako zein arlo bultzatu beharko lirateke gehien ?

Euskal kultura bultzatzea nahi dutenei zuzendu galdera

Nagusiki frantses senditzen direnek sostengatu nahi luzketen 5 alorrak bataz bestekoaren ordena berekoak dira erran nahi baita kantua, dantza, musika, euskara eta ohiturak. Ohar bat halere : euskara, besta, pilota eta gastronomiaren hein berean ezartzen dute.

Nagusiki euskal herritar senditzen direnek eta euskaldunek euskara lehen mailan ezartzen dute. Ondotik aipatzen dituzte antzerkia, dantza, musika eta besta.

Euskal kulturarekin lotutako zein arlo bultzatu beharko lirateke gehien ?

Euskal Herri osoa hartuz, sostengatu behar diren kultura alorrak dira euskara, dantza eta musika (hiruak hein berdintsuan) eta ondotik antzerkia, literatura eta ohidurak.

Euskal Autonomia Erkidegoak euskarazko filmak gehitzen ditu eta iparraldeak kantua azpimarratzen du.




## 4. BIZITZA KULTURALA

53

Azken hiru hilabeteotan zein kultur ekitaldira joan zira ? Zein ziren euskaraz zirenak ?

### Ipar Euskal Herriko emaitzak

Aipatuak izan diren lehen sei ekitaldiak / Six premières activités citées



Euskal kultur erakundearen «Batekmila» programaren barnean eraman inkesta Eusko Ikaskuntzaren partaidetzarekin. Akitania-Euskadi fondoari esker egin da, bai eta ere Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen kabinetearen laguntza teknikoari esker. 2005 - EKE-ICB ©



Azken hiru hilabeteotan zein kultur ekitaldira joan zira ?  
Zein ziren euskaraz zirenak ?

Logika zerbait agertzen da kulturari buruzko irudien eta praktikaren artean : ikusi dugu zer garrantzia ematen zaion euskarari, dantzari, musikari... Horiek hola, iparraldean gehienik praktikatzen diren kultura ekintzak dira zinema, kontzertuak, euskal dantzak, museotako eta monumentuen ikusketak eta antzerkia.


Euskaldunek ez diete lehentasun berezirik ematen euskara erabiltzen duten ekintzei. Egia erran, salbu kontzertuetan, pastoraletan eta bertsolaritzan, euskarazko eskaintza mendrea da kulturaren alorretan.

## 4. BIZITZA KULTURALA


55

Azken hiru hilabeteetan, zonbat aldiz erabili dituzu euskarazko hedabideak ?


Telebista  
Télévision




Irratia  
Radio



Musika  
Musique



Egunkariak, liburuak  
Journaux, livres



Ipar Euskal Herriko emaitzak



Astean behin baino gehiagotan  
Habituellement



Batzutan  
A l'occasion



Sekulan  
Jamais



Ed/Ee  
Nsp/Nrp



Euskal kultur erakundearen «Batekmila» programaren barnean eraman inkesta Eusko Ikaskuntzaren partaidetzarekin. Akitania-Euskadi fondoari esker egin da, bai eta ere Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen kabinetearen laguntza teknikoari esker. 2005 - EKE-ICB ©



EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA  
INSTITUT CULTUREL BASQUE

Azken hiru hilabeteetan, zonbat aldiz erabili dituzu euskarazko hedabideak ?

Irrati emankizunak entzuten dituztenen kopurua, elebidun eraginkorren eta elebidun hartzaileen kopuruaren heinekoa da gutti gora behera (%35). Hein hau gainditzen dute telebista ikusleek (%49) eta bereziki musika entzuleek (%54).

Aldiz aldizkariak eta liburuek askoz irakurle gutiago (%19) erakartzen dute, izan dituen usaiakoak ala noizean behinekoak.

Hizkuntza gaitasunaren arabera, %49 elebidun aktibo edo eraginkorrek ez dute deus irakurtzen euskaraz.



Azken hiru hilabeteetan, zonbat aldiz erabili dituzu euskarazko hedabideak ?

■ Telebista da hedabide erabiliena orotan, eta neurri harrigarrian Euskal Autonomia Erkidegoan (%50).


■ Aldiz egunkarien, aldizkarien eta liburuen irakurketa hedabide ahulena da orotan, ezberdintasunak balinbadira ere Iparraldearen eta EAE-ren artean.

■ Nafarroa da euskarazko hedabideen erabiltzaile ahulena, bereziki irratiei begira (%12).

## 4. BIZITZA KULTURALA

58

Iparaldeko 99 galdezkatuek aipatu dituzten euskarazko irratien izenak



Iparraldeko 99 galdezkatuek aipatu dituzten euskarazko irratien izenak

**Erran behar den lehen gauza : lagina hertsiegia da extrapolazio zerbait egiteko, kasu honetan erantzuleen kopurua oso ahula delakotz : 516 (32%).**

Aipatuenak diren 4 tokiko irratia euskaraz bakarrik ari dira Irulegiko Irratia da irradi aipatuena, gehienik Baxe-Nafarroa/Xuberoan.

Gure Irratia, bigarren mailan heldu dena, eskualde guztietan ezagutua da.

Xiberoko Botza bakarrik Baxe Nafarroa /Xuberoan ezagutua da.


Euskadi Irratia BAB-n eta hego kostaldean ezagutua da.

Iparraldeko 99 galdezkatuek aipatu dituzten euskarazko irratien izenak

- Gero ordrean badatoz TVPI, Mendililia, France Bleu PB, Lapurdi Irratia
- 115 pertsonak diote euskal irrati bat entzuten dutela, beraz erantzuleen %22 : euskarazko irrati bat ezagutzen dutela diotenak kopuru bera da.
- Berdintasun horrengatik erraiten ahal ote dugu inkestak, nahiz eta lagina ahula izan , irrati bakoitzaren entzulegoaren irudia ematen digula ?


### Euskal kulturarentzat kultura globalizatua zer da ?

Iparraldea / Pays Basque nord



### Kultura globalizatuarentzat euskal kultura zer da ?

Iparraldea / Pays Basque nord



Euskal kulturarentzat kultura globalizatua zer da ?

Kultura globalizatuarentzat euskal kultura zer da ?

Euskal Herria orokorki ikusiz, kopuru berdinak (%26) dio globalizazioa euskal kulturarentzat traba bat dela edo aberastasun bat. Bestek (%17) ez dute eraginik ikusten.

Iparraldean asko gehiagok (%34) eragin ona goaitatzen dute kultura globalizatutik, arriskuak ikusten dituztenen aldean (%18)  
Gogo lasaiaren seinalea ote da kulturen topaketari begira ?

Euskal kulturarentzat kultura globalizatua zer da ?





Kultura globalizatuarentzat euskal kultura zer da ?

- Bi galdeak hurbiltzen baditugu, iritzi orokorra da kultura mundualizatuak askoz gehiago irabaz dezakela kultura berezien aldetik, ezinez eta euskal kulturak globalizatuaren aldetik.
- Kultura mundualizatua arriskugarriago da euskal kulturarentzat ezinez eta alderantziz.

## 4. BIZITZA KULTURALA

64

### Kirol bat egiten duzu ?



Euskal kultur erakundearen «Batekmila» programaren barnean eraman inkesta Eusko Ikaskuntzaren partaidetzarekin. Akitania-Euskadi fondoari esker egin da, bai eta ere Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen kabinetearen laguntza teknikoari esker. 2005 - EKE-ICB ©



**EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA**  
**INSTITUT CULTUREL BASQUE**







Kirol bat egiten duzu ?

- Ibilaldiak, txirrindularitza, mendia, igeriketa eta atletismoa dira kirol erabilienak ;
- Pilota Iparraldean zabalduta da hegoaldean baino askoz gehiago.
- Gauza bitxia : txirrindulak arrakasta gehiago dauka Iparraldean Hegoaldean baino

## 4. BIZITZA KULTURALA

66

Kirolzalea zira (nahiz eta ez egin) ?



Kirolzalea zira (nahiz eta ez egin) ?

Futbola, pilota, txirrindularitza, tenisa eta eskuzko baloiak dira kirol ikusgarrienak Euskal Herri osoan. Iparraldean kirol ikusgarriak ordena berean dira, baina errugbia gehitu behar da, lehen tokian ezarriz, hegoaldean zerrendaren beherealdean delarik.

Pilota garrantzi handia dauka jenden irudikapenean, baina ez da kirol nagusia. Lehenatasuna futbolak hartu du hegoaldean, errugbiak eta futbolak iparraldean.

## 5. ONDORIOAK



Euskal kultur erakundearen «Batekmila» programaren barnean eraman inkesta Eusko Ikaskuntzaren partaidetzarekin. Akitania-Euskadi fondoari esker egin da, bai eta ere Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen kabinetearen laguntza teknikoari esker. 2005 - EKE-ICB ©



**EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA**  
**INSTITUT CULTUREL BASQUE**

## LURRALDEA

Ideologiaren aldetik, zazpi herrialdek dute Euskal Herria hobekien definitzen

Baina praktikan harreman haustura bat badago iparraldearen eta hegoaldearen artean. Hori dokumentuan ikusiko duzue.

Dena dela, jende gehienentzat erreferentziazko lurraldea bere udalerria da eta dagoen lurralde administratiboa.

## NORTASUNA

Iparraldean nortasunaren ezaugarri nagusiak dira sor lekua eta euskara, aldiz hegoaldean euskal herritar izaiteko nahia eta Euskal Herrian bizi eta lan egitea.

Euskaldun gehienek nortasun bikoitza senditzen dute : euskaldun-frantses, euskaldun-espainol, nafar-euskaldun... Beren burua soilik euskal herritar daukatenetan (%40 badira EAE-n), batzuk euskara ez dakite, eta beren burua soilik frantses sentitzen dutenetan (%36 dira iparraldean)anitzek nahi dute beren haurrek euskara ikas dezaten eta jatorrizko euskal izenak atxik ditzagun.



## HIZKUNTZA

Euskara guttiengoan dago 3 lurraldeetan eta elebidun gehienek hobeki hitz egiten dute frantsesez edo espainolez. Alta motibazio gehienak baikorrak dira euskararen alde.

Jende gehienek sustengatzen dute familia eta eskola bidezko transmizioa. Euskalduntasuna aintzina doa orotan eta elebakartasuna gibelera.

Euskararen alde bada maitasun oldar harrigarria, eguneroko erabilerari norabidetu behar dena.

## BIZITZA KULTURALA

Kultura ikurraren eta errealitatearen mugan dago. Euskal kultura aipatzen dutenentzat aipagai nagusiak dira : euskara, kantua, dantza, pilota, ohidurak.

Halere ohizko praktikan euskarak ez dauka lehentasuna, baina bai zinemak, kontzertuek, dantzak, erakustokiek.

Antzerkia, bertsolaritza eta literatura ez dira hain erakargarriak jende askorentzat, euskara dakitenak barne.

Salbuespen bat : entzun ikusizko euskal hedabideak interesgarriak dira elebidun hartzaileentzat eta ere erdaldunentzat. Irakurketak badu sostengu eraginkor baten beharra.



## BIZITZA KULTURALA

Euskal kirolaren irudikapena aldatzen ari da. Pilotak dauka sendimenduzko lehentasuna, baina ohizko praktikan ibilaldiak eta txirrindularitza aintzindu zaizkio.

Pilota kirol ikusgarria da, plazan baino gehiago hedabideetan. Horiek hola, hegoaldean futbolak dauka lehen lekua eta errugbiak iparraldean.



Euskal kultur erakundearen «Batekmila» programaren barnean eraman inkesta Eusko Ikaskuntzaren partaidetzarekin. Akitania-Euskadi fondoari esker egin da, bai eta ere Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen kabinetearen laguntza teknikoari esker. 2005 - EKE-ICB ©



EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA  
INSTITUT CULTUREL BASQUE



Hona hemen Euskal Herriaren argazki aberats bat, denbora berean berezia eta ainitza.

Berezia euskararen aldeko atxikimendua eta nortasun sendimendua bizkorrak direlako.

Ainitza sinesmenen aldetik, kirol eta kultura praktikaren aldetik, elkarte dinamikaren aldetik.

Gauza guziak bilakaeran daude : lurraldearen konzeptua, hizkuntz eta kultur adierazpenak eta bereziki nortasun sendimendua.

Hain segur horra zergatik laginaren gehiengo handiak ez duen globalizazioaren beldurrik.



## Euskal kulturaren web ataria **AKE**.ORG



[http://www.eke.org/eke/gure\\_ekintzak/batek\\_mila/batek\\_mila\\_ekintzak/inkesta](http://www.eke.org/eke/gure_ekintzak/batek_mila/batek_mila_ekintzak/inkesta)